

Alhóndiga Bilbao

LIVE MUSIC EXPERIENCE

EKAINAK 7 > IRAILAK 2

JARDUERA EGITARUA

www.alhondigabilbao.com/eu/programacion/live-music-experience

GURE JARDUERETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKORIK BEHAR BADUZU ETA BAITA, HOBETO ENTZUN NAHI BADUZU ERE, ESKATU LASAI. GUZTIONTZAKO GUNEA DA ALHÓNDIGABILBAO



ALHÓNDIGABILBAO TXARTELAK ALHÓNDIGABILBAO UNIBERTSOAREN ATEAK IREKIKO DIZKIZU. BERTAN, ESKAINTZA HANDIA GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUZU (KULTURALA, SOZIALA NAHIZ JARDUERA FISIKOEN ARLOKOA). TXARTELARI ESKER JARDUERA ETA PROGRAMA-ZIO GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOKO DUZU ALDIAN-ALDIAN, ETA DESKONTU ETA ABANTAILA INTERESGARRIAK BALIATU AHAL IZANGO DITUZU.

EZINBESTEKOA BADA, ALHONDIGABILBAO-K PROGRAMATUTAKO JARDUERAK BERTAN BEHERA UZTEKO, ALDATZEKO EDO ATZERATZEKO ESKUBIDEA ERRESERBATUTA DU; HORRELAKORIK GERTATZEN BADA, ALDEZ AURRETIK BERE WEB-ORRIAN JAKINARAZIKO DU: WWW.ALHONDIGABILBAO.COM

LIBURUXKA HAU ERAMAN BAINO LEHEN, INGURUMENAREKIN DUZUN ERANTZUKIZUN ETA KONPROMISOAN PENTSATU. EZ BADUZU LIBURUXKA ERABILTZEKO ASMORIK, UTZI BESTE PERTSONEK IKUSI DEZATEN.

www.alhondigabilbao.com • info@alhondigabilbao.com
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 • 944 014 014



Antolatzailea / Zuzendarikidetzak

Alhóndiga Bilbao

Zuzendarikidetzak

zorrozua asociados

Lankidetzak berezia

Last Tour International

Babeslea

PHILIPS

Laguntzaileak



Komunikabide lankideak

gzsbea

radio 3

rne

Live Music Experience erakusketa

Ekainak 7 – irailak 2 • Erakusketa Aretoa. -2. solairua

3 € / 2 € AlhóndigaBilbaoren txartelarekin edo Bilbao BBK Live Festival bonua aurkeztuz

Ekaina: 10:00 - 20:00 h • Astelehenetan itxita

Uztaila eta abuztua: 11:00 - 21:00 h • Astelehenetan irekita

“Live Music Experience” erakusketa azken hamarkadetakozuzeneko musikaren gaineko begirada da, zer, nola eta zergatik baten begirada, hain zuzen ere.

Une musikal onenen eta harrigarrienen zuzenekoak itxura hartzen du erakusketa honetan eta bere inguruan programatutako jardueretan. Kontzertuetatik hitzaldi, tailer edo argazki erakusketetaraino, gustu eta adin guztietarako.

“Live Music Experience” erakusketak, estreinakoz, “in live” musikaren unerik azpimarragarrienen “revival” bat proposatzen du. Halaber, materialen, bidaien, instrumentuen, sarrera txartelen, biniloen, ikus-entzunezkoen, abestien, elastikoen, estadioen eta aretoetako bizipenak ikusi ahal izango ditugu, musika bizitzea zer izan zen, zer den eta zer izango den sentitzeko.

Sarrera berria Erakusketa Aretora

Eraikinaren barruan: Kulturen Ataritik, Informazio Guneetik hurbil dauden eskaileretatik. Infopuntua.

Eraikinaren kanpoan: Erakusketa Aretorako zuzeneko sarbide berria ireki dugu Urquijo zumarkalean, aparkalekurako sarbideen ondoan.

Kontzertuak



Audience

Inaugurazioa: Audience

Osteguna, ekainak 7 • 21:00 h

Kulturen Ataria

Bi zati izango ditu programa berezia izango duen kontzertu honek. Ohiko errepertorioaz gainera, Audiencek hainbat bertsiok eta zenbait abesti berri joko ditu Mikel Laboaren musikaren inguruan.

www.myspace.com/weareaudience



Le Noise

Musika Txikia, haurrentzako kontzertua

Larunbata, ekainak 23 • 13:00 h

Kulturen Ataria

Ordubeteko ikuskizun honetan, lau talde (Ruso, Santi Delgado y los Runaway Lovers, Le Noise eta Planetaleta) umeen gaitasun artistikoak pizten saiatuko dira. Kontzertua lau zatitan banatuta dago, eta publikoaren parte-hartzea ezinbestekoa da.

<http://www.myspace.com/espacioruso>

<http://santiagodelgadoylosrunawaylovers.bandcamp.com>

<http://lenoise.bandcamp.com/>

<http://www.myspace.com/planetaleta>

Bilbao BBK Live

Kulturen Ataria • 13:30 h

Kobetamenditik Kulturen Atarira. Bilbao BBK Live jaialdiko parte-hartzaileetako batzuk AlhóndigaBilbaon arituko dira.

Ostirala, uztailak 13: Glasvegas

Larunbata, uztailak 14: The View

Hitzaldiak

Roberto Mosoren eta Gotzon Herminosillaren koordinaziopean, hitzaldi hauetan kontzertuen munduan bizi izan diren aldaketak birpasatuko dira, eta, batez ere, Euskal Herriko zuzeneko musikaren historiaz arituko dira, 70eko hamarkadatik 2010era arte.

“Euskal Herria eta musika. 40 urtez jo eta ke”

Asteazkena, ekainak 27 • 19:30 h • Erakusketa Aretoa. -2. solairua

Sarrera dohainik, leku kopurua bete arte • Euskaraz

Parte-hartzaileak: Josu Zabala eta Gotzon Hermosilla (koordinatzailea), besteak beste.

“Bilbao eta musika”

Osteguna, ekainak 28 • 19:30 h • Erakusketa Aretoa. -2. solairua

Sarrera dohainik, leku kopurua bete arte • Gaztelania

Parte-hartzaileak: Álvaro Heras, Elena López, Andrés Portero eta Roberto Moso (koordinatzailea), besteak beste.

Musika Zuzenean - Gaztea Live

Ekaina: 19:00 h • **Uztaila eta abuztua:** 20:00 h

Erakusketa Aretoa. -2. solairua • Sarrera dohainik, leku kopurua bete arte

Euskal musikaren historiako kontzertu historiko esanguratsuen eta nazioarteko proposamen iradokitzaileen ikus-entzunezko hautaketa.



Delorean © Maryleuca

Astearte, ekainak 12: Rock Radikal Vasco (80's)
Osteguna, ekainak 14: R.E.M. (1997) Uptake (Up songs)
Astearte, ekainak 19: Hertzainak, Anoeta 1993 (Agurra)
Osteguna, ekainak 21: Kobetasonik 2009
Astearte, ekainak 26: Katukale, Hertzainak taldearen programa berezia
Osteguna, ekainak 28: Azkena Rock Festival 2009 (I)
Astearte, uztailak 3: Gose eta Anger
Osteguna, uztailak 5: Katukale, Kortaturen programa berezia
Astearte, uztailak 10: Audience Bilborock
Astearte, uztailak 17: M-ak Tolosan, 1987
Osteguna, uztailak 19: Pablo Milanés
Astearte, uztailak 24: Delorean, Extraperlo, 2011
Osteguna, uztailak 26: Azkena Rock Festival 2010 (I)
Astearte, uztailak 31: Ruper Ordorika Zuzenean 1996
Osteguna, abuztuak 2: Azkena Rock Festival 2010 (II)
Astearte, abuztuak 7: La Pegatina 2011
Osteguna, abuztuak 9: U2 Live from Mexico 1997
Astearte, abuztuak 14: Itoitzen berezia
Osteguna, abuztuak 16: Flaco Jiménez
Astearte, abuztuak 21: Xabier Lete Donostiatic
Osteguna, abuztuak 23: Azkena Rock Festival 2009 (II)
Astearte, abuztuak 28: BBK Live 2009 (I)
Osteguna, abuztuak 30: BBK Live 2009 (II)

Musika Tailerra "Practice your Music"

Osteguna, uztailak 12 • Ostirala, uztailak 13 • Azteazkena, uztailak 25 • Azteazkena, abuztuak 8

11:00 - 14:00 h eta 17:00 - 20:00 h • Erakusketa Aretoa. -2. solairua

Jarduera hau erakusketarako sarreraren prezioaren barruan dago

Jende guztiarentzat

Balea Musikak garatutako software interaktiboarekin, musika instrumentu ezberdinak jotzen ikas dezakezu, taldearen beste kide bat izango bazina moduan.

Zine Dokumentalaren Zikloa



"Woodstock 3 Days of Peace & Music"

Astearte, ekainak 12 • Golem Alhóndiga Zineak. -2. solairua

4 € / 3 € AlhóndigaBilbaoren txartelarekin

18:00 h: "Lemmy"

Greg Olliver eta Wes Orshoski, AEB, 2010. 116 min.

Lemmy Kilmister heavy metalaren ikono aitzindariaren bizitza harrigarriaren eta bere ibilbidearen azterketa, eragin handia izan duen Motorhead musika banda iraunkorraren atzean ezinbesteko indargunea. Ozzy Osbourne, Metallica, Slash, Alice Cooper eta beste asko gehiagorekin.

20:00 h: "When you're strange"

Tom DiCillo, AEB, 2009. 90 min.

"When you're strange" filma Tom DiCillok zuzendu eta Johnny Depek narratu du, eta The Doors taldeari buruzko lehen film dokumentala da. Los Angelesen (Kalifornia) sortutako musika talde ospetsuari buruzko ikus-entzunezko materiala jasotzen du, eta bandaren alde ezezagunenera hurbiltzen da, bereziki taldearen karismadun liderrarengana: Jim Morrisonengana.

21:45 h: "Venid a las cloacas"

Daniel Arasanz, Espainia, 2010. 90 min.

La Banda Trapera del Río taldea Trantsizioko rock bizienaren ordezkaria da. Satélitoko -euren bizitoki izandako San Ildefonso auzoak zuen izena- kaleko txakurrak ziren, eta inspirazioa aurkitu zuten hiri-inguruetako errealitate gordinean. Sorreratik 33 urtera, Traperak estoldetatik aterata da berriz, modu bidegabean estalitako ondarea aldarrikatzeko.

Astearte, ekainak 19 • Auditoriuma. -1. solairua

4 € / 3 € AlhóndigaBilbaoren txartelarekin

"Euskal rock erradikala: 80ko hamarkadako Martxa Handia" filmaren aurrestreinaldia

Begoña Atutxa, Euskadi, 2011. 55 min.

Santurtziatik Bilbora, gaztetxe eta auzoetatik goaz EREren historiaren bila, hiriz hiri. Garrantzitsuenak, jakina, taldeak dira: Zarama, Hertzainak (aitzindariak euskara erabiltzen) eta Kortatu; Barricada eta La Polla Records, Eskorbutoaren errusiar erruleta, Cicatriz edo RIP. Eta protagonistekin hitz egingo dugu, haietariko asko dagoeneko gure artean ez dauden arren... Eskerrak eman nahi dizkiogu bereziki TVEri, K2000 etxeak ekoizti duen eta La2 kateak laster emitituko duen dokumental hau lagatzeagatik.

20:00 h: Aurkezpena

20:15 h: Pelikularen proiektzioa

21:10 h: Topaketa zuzendariarekin, Begoña Atutxa

Astearte, ekainak 26 • Golem Alhóndiga Zineak. -2. solairua

4 € / 3 € AlhóndigaBilbaoren txartelarekin

18:00 h: "Woodstock, 3 egun bakez eta musikaz blai: zuzendariaren muntaia"

Michael Wadleigh, AEB, 1970. 184 min.

Bethelen (NY) egin zen Woodstock jaialdi ospetsuari buruzko dokumentala. 1969ko abuztuan, 450.000 pertsona bildu ziren ordura arte egin zen rock musika jaialdirik handienean. Woodstock-ek izena eman zion belaunaldi bati, eta garai bat markatu zuen jaialdia izan zen.

21:00 h: "Anvil"

Sacha Gervasi, Kanada, 2008. 80 min.

Anvil Kanadako historian egon den heavy bandarik garrantzitsuenak da, eta bera da historiako Metal albumik garrantzitsuenetakoa den "Metal on Metal" delakoaren erantzulea. Adiskidetasunari eta nork bere burua gainditzeari buruzko kontakizun hunkigarria eta iradokitzailea.

Argazki-proiektzioa "Tiroak zuzenean"

Marivi Ibarrola



Josu Eskorbuto, 1985 © Marivi Ibarrola

Ekainaren 25etik uztailaren 1era • 18:00-21:00 h

Eguzkiaren Pantaila. Kulturen Ataria

80 argazkiko proiektzioa, 80ko hamarkadan eszenatokiak animatu zituzten kontzertu nazionalena nahiz nazioartekoen. Hautaketa Marivi Ibarrola kazetariaren argazki-artxibotik egin da. Argazkietako bakoitzak ikuspuntu berezia dauka, zeinak ikusleari hausnarketa egitea ahalbidetzen baitio eta testigantzara hurbiltzen baitio.

Marivi Ibarrolak hitzaldi irekia eskainiko du bilduma honen gainean ekainaren 25ean, arratsaldeko zortzietan, Kulturen Atarian.

Radio 3 zuzenean

Radio 3k hainbat programa grabatuko ditu zuzenean AlhóndigaBilbaoko Erakusketa Aretoan, "Live Music Experience" erakusketaren inguruan.